

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure merkatuaren segmentazioa definitzeko beharrezkoa da gure bezero potentziala zein den argi eta garbi deskribatzea, beraiek baitira edozein negozio-ereduren funtsa. Eta horretarako, gure merkatuaren-segmentazioa aurkeztuko dizuegu.

Gure bezero potentziala lau eta hamaika urte bitarteko haurrak dituzten gurasoak izango dira, guraso hauek edozein adina izan dezakete, eta beraiek izango dira gure ondasuna erosiko dutenak, gure produktua saltzen dugun dendetan. Beraien seme-alabak, berriz, gure erabiltzaile potentziala izango dira, azken finean, beraiek jolastuko dutelako panpinekin.

Guraso hauek, beraien seme-alabei panpinak erosteko prest daunen pertsonak soilik izango dira, askotan, hainbat gurasok ez dituztelako panpinak erosten. Bezero hauek izango duten ezaugarri garrantzitsuena gizartean ezarrita dagoen pentsamendua aldatzeko nahia da, hau da, kontzientzia soziala dute. Hauek ere identifikatu dutelako gizarteak gorputz ez-normatiboekin duen arazoa, eta hori aldatzeko prest daudelako. Bai beraien ikuspegia, eta bai beraien seme-alabena ere.

Gure panpinak genero guztiei bideratuta daude: gizonak, emakumeak, ez-binarioak... Kontziente garelako, hainbat genero baztertuak izan direla urte luzez, eta gaur egun guk proposatutako ideiarekin eta ikuspegi aldaketarekin bat egingo dutela.

Bestalde, gure ideia eta gure ikuspegi aldaketa mundu guztian zabaldu nahi dugula azpimarratu nahi dugu, hala ere, oraingoz Espainia eta AEBen saltzen hasiko gara, era berean, badakigu gure panpinak erostea ez dela posible familia guztientzat, duen prezioagatik. Horregatik, gure bezero potentzialak gure panpina erosteak suposatzen duen gastua ordaindu ahal dutenak izango dira.

Bezero hauek, Espainia eta AEBkoak izango dira, gure panpinak bi herrialde horietan bakarrik egongo direlako eskuragarri. Bi herrialde hauek aukeratu ditugu jomuga gisa, lehenik, gu Espainiar estatuaren barruan kokatuta gaudelako eta arazo



sozial hau guk ere pairatu dugulako. Gainera, ilusio handia egingo liguke gure inguruko haurrak gure panpinekin jolasten ikusteak. Bestalde, AEBak ere hautatu ditugu, merkatu oso indartsua dutelako. Gure ustez, bertan gure panpinek arrakasta handia izan dezakete, bertako biztanleak kontsumitzaile potentzialak direlako. Horrez gain, herrialde horretan produktu originalak eta inklusiboak arrakasta handia izan dezaketela uste dugu. Gainera, AEBetako merkatuak aukera handiak emango dizkigula uste dugu, hala nola, panpinak jende gehiagok ezagutzeko eta guk zabaldu nahi dugun pentsamendua publiko gehiagorengana iristeko. Hori dela eta, gure panpinak eta hauen bidez zabaldu nahi dugun mezua leku gehiagotara iritsiko dela iruditzen zaigu.

Laburbilduz, *Lera Style*-k gizartean aldaketa bat bilatzen duten familietan oinarrituta dago, hauen gure proiektua aurrera eramaten lagunduko digutelako. Modu honetan, gure panpinek aurrei jolasteko aukera emateaz gain, gorputz aniztasuna transmitituko dute munduko hainbat tokitan.

